



CASERÍO MUSEO
IGARTUBEITI
BASERRI MUSEOA

Zerbitzu
Karta

Igartubeiti
Baserri
Museoa

2021-2022

5. berrikusketa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Sarrera

Zerbitzu karten bitartez informazioa eman nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuen ezaugarriei buruz, eta horiek kalitatez emateko hainbat konpromiso ere hartu nahi ditugu.

Halako ekimenei esker eta zure laguntzarekin, erabiltzaileen beharrak asebetetzera bideratu nahi ditugu Foru Aldundiaren zerbitzu publikoak, eta horiek hobetzen jarraitu nahi dugu.

Markel Olano Arrese
Gipuzkoako diputatu nagusia

Harkaitz Millan Etxezarreta
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta
Kirol foru diputatua

Xedea

Igartubeiti Baserri Museoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu publiko bat da, **euskal kulturaren ondarea gaur egungo ikuspegitik** transmititzen duen espazio kultural aktibo bat. Espazio horrek eraldaketa sozial **jasangarria** sustatzen du, ondarearen **hezkuntza- eta gizarte-ikuspegi** batetik.

Zein zerbitzu eskaintzen ditugu?

Zein dira gure konpromisoak?

Nola neurtzen dugu?

Hezkuntza zerbitzua

- Ibilbide tematikoak.
- Tailer didaktikoak.
- Baliabide didaktikoak, aurrez aurrekoak eta online.
- *Igartubeiti familian*, familiei zuzendutako programa.
- *Igartubeiti zure eskura* programa.
- Zentzumen esperientzia, behar espezifikoak dituzten pertsonentzat.
- Bisita gidatuak.

- 1) Bisita gidatua (gaia, dinamika, parte hartzea, iraupena) ikasle-taldean nahiz helduen ezaugarrietara egokitzea, bisitarien parte hartzea bultzatuz. Erabiltzaileek batez beste 10etik 7,8 baino balioztatze handiagoa eman diezaieten lortzea.
- 2) Gutxienez 25 kultura- hezkuntza- edo didaktika-jarduera egitea; horietako bat premia bereziak dituen kolektibo batekin lankidetzan egingo da. Erabiltzaileek batez beste 10etik 7,8 baino balioztatze handiagoa eman diezaieten lortzea.
- 3) Urtero 5 familia berrik FamiliTxartela eskuratzea.

- 1) Erabiltzaileek betetako inkestak batezbesteko emaitzen bidez.
- 2) Urtean zehar antolatutako ekintza kopurua.
- 3) Familia berrien kopurua.

Kultura dinamizatzeko zerbitzua

- Emakumeak landa ingurunean Jardunaldia (Emakumeen Nazioarteko Eguna).
- Museoen Nazioarteko Eguna.
- Sagardo Astea.
- Musika kontzertuak.
- Ondarearen Europako Eguna.
- Euskararen Eguna.
- Aldi baterako erakusketak.

- 4) Gutxienez 5 jarduera kultural, hezigarri edo didaktiko egitea, ondarearen eremua artearen eremuarekin lotzen dutenak, gizarte berrikuntzan eta esperimentazioan sakontzeko.

- 4) Egindako jardueren kopurua.

Ikerketa zerbitzua

- Artxibo digital aktiboa.
- MusealiaK programa.

- 5) Gutxienez Gordailuko 3 pieza eta objektu erakustea Igartubeitin.

- 5) Gordailuko zenbat pieza eta objektu egon diren agerian.

Web zerbitzua

- Eduki didaktikoak.
- Dokumentazioa.
- Berriak.
- Agenda.

- 6) Hilero bi berri argitaratzea.
- 7) Hilero agendan bi jarduera argitaratzea.

- 6) Argitaratutako berri kopurua.
- 7) Argitaratutako jarduera kopurua.

Komunikazio eta hedapen zerbitzua

- 8) Web eskaintza hilero zabaltzea, eduki berrieekin.

- 8) Web eskaintza zenbat hilabetez eguneratu den aurreikusitako datan.

Kudeaketa jasagarria

Jarduerak, zerbitzuak, programak eta barne kudeaketa biltzen dituen kudeaketa eredu jasagarri baten garapena.

- 9) Ingurumenarekin eta natur ondarearekin erlazionaturako 10 jarduera gutxienez urtero programatzea.
- 10) Lan prozesuetan eta jardueretan ingurumenaren gaineko eragina txikiagotzea.

- 9) Programaturako jarduera kopurua.

- 10) Ingurumenari dagozkion datuak urtero zenbatuz eta aztertuz.

Beste erakunde edo eragile batzuekin lankidetzak

- 11) Inguruko eragileekin lankidetzan gutxienez 5 jarduera gauzatzea.

- 11) Burututako jarduera kopurua.

Arreta

- 12) Jendeari adeitasunez arreta ematea.
- 13) Bisitarienezako leku egoki eta erosoak izatea.

- 12) Erabiltzaileen baliospena 7,5etik gora, jasotako arretari dagokionez.
- 13) Erabiltzaileen baliospena 7,5etik gora, lekuari dagokionez.

Denda

Bertako artisau produktuen eskaintza.

- 14) Bertako artisau produktuen salmenta.

- 14) Bertako artisau produktuen kopurua salgai.

Herritarren eskubideak eta betebeharrak

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak hemen zerrendatzen dira: apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuaren 4. artikulua (GA, 101. Zk., 2005-05-31).

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-eskubideak>

Herritarrek Foru Aldundiarekiko dituzten betebeharrak helbide honetan jasotzen dira:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/herritarren-betebeharrak>

Konpromisoak betetzea

Zerbitzu karta honetako konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu urteko emaitzak honako web orrian:

- <https://www.igartubeitibaserraia.eus/eu/museoa>
- <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/arreta/zerbitzu-kartak>

Zerbitzu karta honen ardura duen unitatea

Gordailua eta Museoen Zerbitzua arduratzen da zerbitzu karta prestatzeaz, Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean.

Partaidetza, kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak badu kexak eta iradokizunak jasotzeko sistema bat, zeinaren bitartez herritarrek aukera izan baitezakete beren iritzia bidaltzeko karta honetan eskainitako zerbitzuez eta bere gain hartutako konpromisoez.

Kexak eta iradokizunak Foru Aldundiaren edozein erregistrotan edo posta bidez aurkez daitezke, edota Internet bidez, web orrialde honetan:

- <https://egoitza.gipuzkoa.eus>: Kontsultak, kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 egun balioduneko epea du erreklamazioei erantzuteko.

Eskertuko genizuke zerbitzuak hobetzen parte hartuko bazenu, bidaliko dizkizugun gogobetetze inkestak betez.


Internet / Telefonoak


Internet helbidea

www.igartubeitibaserra.eus

 facebook.com/igartubeiti

 twitter.com/igartubeiti

 youtube.com/user/IgartubeitiMuseoa

 flickr.com/photos/igartubeiti

 instagram.com/igartubeiti

Email

igartubeiti@gipuzkoa.eus

Telefonoa

+34 943 72 29 78 / +34 943 72 51 07
+34 618 00 41 31

Ordutegia / Helbideak

Bisita orduak

Martxoaren 1etik urriaren 31a bitarte

Asteartetik larunbatera, 10:00 – 14:00 eta
16:00 – 19:00

Igandeak: 10:00 – 14:00

Azaroaren 1etik otsailaren 28a bitarte

Asteartetik ostiralera, 10:00 – 14:00

Larunbatak, 10:00 – 14:00 eta 16:00 – 19:00

Igandeak, 10:00 – 14:00

Aste Santua eta jai egunak

10:00 – 14:00 eta 16:00 – 19:00

Itxiera egunak

Urtarrila: 1 eta 6

Maiatza: 1 eta 8

Abendua: 24, 25, 30 eta 31

Helbidea

Igartubeiti Baseri Museoa

Ezki bidea, z.g. (Ezkiorako errepidea, 1 kilometro)
20709 Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

Prezio publikoak

A tarifa: orokorra: 3 €

B tarifa: taldeak (5 lagun edo gehiago): 2 €

C tarifa: murriztua (ikasleak, familia ugarietakoak,
eta 65 urtetik gorakoak): 1,5 €

Doako sarrera: ostegunetan

- www.igartubeitibaserra.eus/eu/bisitatu/tarifak

Irispidea eta garraiobideak

Igartubeiti Baseri Museoa Ezkion dago, Ormaiztegi eta Zumarraga artean.


Aparkalekua

Museoak aparkalekua du.



Busa

- Donostia-Bilbo (PESA autobusak)
- Iruñea-Eibar (PESA autobusak)
- Legorreta-Zumarraga (Goierrialdea autobusak)
- Gabiria-Ormaiztegi-Itsaso-Ezkio-Zumarraga (Goierrialdea autobusak)



Igartubeiti Baseri Museoa

Ezki bidea, zg (Ezkiorako errepidea 1. Kilometroa)
20709 Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa)

+34 943 72 29 78

+34 943 72 51 07

+34 618 00 41 31

www.igartubeitibaserra.eus
igartubeiti@gipuzkoa.eus

2021eko uztailean argitaratua.

